



**Dossierra**

# **Turismoa Donostian: 2019ko udak utzi duena eta aurrera begirako gogoetak**

**2019ko urria**

# 1. Datuak

## 1.1. Turista kopurua

2018an inoizko turista kopuru handiena iritsi ziren Donostiara, 1.400.000 gualdi muga gaindituz, 2017an baino %9,3 gehiago. Eta 2019ari dagokionez, joera berdina mantentzen da (+%8,35 abuztura arte).

Azpimarratzekoa da igoera handi hauek baloratzeko orduan, Udal Gobernuak alde batera utzi duela "Turismoa Gida-plana 2017-2021" aurkezpenean erabilitako diskurtsoa ("[modu orekatuan haztea](#)"). Hau da, gobernuak baztertu egin ditu bisitari kopuruaren "egonkortasunaren" aldeko hitzak eta errekorren diskurtsora itzuli da. Izan ere, Eustaten datuen ateratzen den bakoitzean, Donostia "EA Eren turismoaren buru" dela adierazten du Udal Gobernuak.

### GAUALDIAK DONOSTIAKO HOTELETAN

2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019 abuztura arte
954.446	991.235	1.038.540	1.167.549	1.265.546	1.293.880	1.413.745	1.033.300
+ % 4,05	+ % 3,85	+ % 4,77	+12,42%	+ % 8,39	+ % 2,24	+ % 9,3	+ % 8,35

Iturria: Eustat

## 1.2. Desestazionalizazioa

Udal Gobernuak behin baino gehiagotan adierazi du Donostiako turismo eredua desestazionalizatzen ari dela, baina datuek ez dute hori adierazten, igoera nahiko homogenea baita urte osoan. Desestazionalizazioan oinarritutako estrategiaren funtsa bisitariak goi-denboralditik behe-denboraldira pasatzean oinarritzen da, eta horrelakorik ez da gertatzen ari Donostian, udan eta Aste Santuan ere asko igotzen jarraitzen duelako.

### Gaualdiak 2019

Urt.	Ots.	Mar.	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua
71.263	69.996	102.488	135.523	143.059	153.080	174.329	186.562
+ % 9,7	+ % 8,2	+ % 3,6	+ % 13,8	+ % 6,8	+ % 10,7	+ % 8,4	+ % 6,2
+ 6.328	+ 5.292	+ 3.551	+ 16.073	+ 9.168	+ 14.834	+13.545	+10.842

Oharra: Aste Santua aurten apirilean izan da eta ia martxoan. Martx+Apir = + 19.624 (+ % 9,1)

Iturria: Eustat

### 1.3. Hotelak

2015. urtetik, pentsioak alde batera utzita, 35 hotel ireki edo proiektatu dira Donostian.

Izena	Kalea	Gelak	Egoera	+info
<b>Sansebay</b>	Mari kalea.	17	Irekita	
<b>Arima</b>	Poliklinika ondoan	73	Irekita	
<b>Arrizul</b>	Ronda Kalea 3	46	Irekita	
<b>Koisi Aterpetxea</b>	Heriz pasealekua	150 ohe	Irekita	
<b>Lasala</b>	Lasala Plaza	69	Irekita	
<b>Room Mate Gorka</b>	Gipuzkoa plaza 11	33	Irekita	
<b>Akelarre jatetxea</b>	Igeldo	22	Irekita	
<b>One shot</b>	Tabakalera.	34	Irekita	
<b>Villa Victoria</b>	San Bartolome.	34	Irekita	
<b>Villa Birdie</b>	Intxaurreondo	5	Irekita	
<b>Errotazahar 142</b>	(ibaeta)	12	Irekita	
<b>Aterpetxea</b>	Matia 18			
<b>Zenit</b>	S.Martin (Siervas de Maria)	81	Obretan	
<b>Reparadoras</b>	Easo kalea		Auzitegietan	
<b>Catalonia</b>	San Bartolome komentua	123	Obretan	Babestutako eraikina bota dute,
<b>Portuetxe, 35</b>		151	stand by	
<b>Jai Alai 4</b>		16	Obretan	Obrak geldituta
<b>Atari</b>	Kale Nagusia 18	29	Baimendua	Irregulartasun zantzu asko
<b>Londres II</b>	Zubieta 26	23	Baimendua	
<b>Zubieta 3</b>		15 .	Baimendua	
<b>Axel</b>	Amara, 26	100	Obretan	LGTBI komunitatearentzat zuzendua
<b>Arrizul</b>	Aldunaene.	14	Irekita	
<b>Haranburu</b>	Hond. 24 S.Martin 22	51	Obretan	
<b>“Distrito Oeste”</b>	Lorea	34	Irekita	
<b>Ilunbe</b>	Merkataritza gunea	75	Baimendua	
<b>Ulia</b>	San Ignacio erresidentzia	200 ohe	Tramitean	
<b>Abba</b>	Frantzia Pas, 4	44	Obretean	
<b>The Student Hotel.</b>	Riberas de Loiola	325	Tramitean	2021rako iraki nahi dute. Hotel eredu berria, zenbait lekutan protestak eragin dituena.
<b>Villa Itxas Gain MERCER</b>	Aldapeta, 62	25		
<b>Bilbao Plaza</b>			tramitean	EJ-k funts pribatu bati saldu zion eraikina eta honek hotel bat egin nahi du bertan
<b>Mirakontxa, 32</b>		30	Baimendua	
<b>Donostiako apezpikutza</b>	Zabaleta, 5	25	Obretan	Apartahotela
<b>Donostiako apezpikutza</b>	Urdaneta (Idatz liburudenda)		tramitean	Apartahotela
<b>Donostiako apezpikutza</b>	Familia Santua (Amara Berri)		tramitean	
<b>Construcciones Goiz Lan</b>	Martulene (Aiete)	7	Obretan	Apartahotela
<b>Casual</b>	Pio XII	60	Obretan	

Iturria: EH Bildu udal taldea

Plazak Donostiako hoteletan

2013	2014	2015	2016	2017	2018
4.886	4.956	5.247	5.404	5.613	XXXX*


\*Aurtengo datuak ez ditu publiko egin oraindik Udal Gobernuak, aurten “Hiri ekonomiaren barometroa” delakoa ez duelako aurkeztu, lehen aldiz azken hamarkadan.

Iturria: Donostiako Sustapena

Udal Gobernuak hauteskunde atarian bizitegi-erabilera duten eraikinak hotel bihurtzeko aukera mugatu nahi zuela iragarri zuen. Urtebete berenduago, araudi aldaketak tramitazioan jarraitzen du. Udal gobernuak atzerapenari buruzko azalpenik ez du azaldu, baina bitartean hirian hotel berriei baimenak ematen ari zaizkie, tartean Munilla sustatzen ari den apartahotelei. Edozein kasutan, neurri hau bizitegi-erabilera duten eraikinetarako pentsatua dago, eta gaur egun erabilera komertziala duten eraikinetan balizko neurri honek ez luke inongo ondoriorik izango.

#### 1.4. Pisu turistikoak

##### Legezko pisu turistikoak



- **Legezko eskaintza.** Ordenantza berria onartu baino lehen, Donostian 348 legezko pisu turistiko zeuden. Gaur egun Donostiako udalak 1306 pisu turistiko onartzen ditu. Hau da, ordenantza berriarekin legezko pisu turistikoak laukoiztu egin dira Donostian. Beraz, EH Bilduk asmatu egin zuen bete-betean adierazi zuenean ordenantza berriak **de facto amnistia** bat suposatzen zuela Donostian zeuden ehunka legez kanpoko pisu turistikorentzat ([Eneko Goiak gezurtatu arren](#)).
- **Legez kanpoko eskaintza.** Hala ere, inork ez daki gaur egun zenbat pisu turistiko dauden zehatz-mehatz Donostian, legezkoen eta ez legezkoen artean. [AirDNA](#)-ren arabera 1.955

eskaintza daude AirBnB eta Homeway plataformetan. Baina Internet bidezko beste operadore gehiago daude.

- Eskaintza erdigunetik eta Grosetik inguruko auzoetara zabaltzen ari da, Udal webgunean aldiro eguneratzen den [mapa honetan](#) ikusten den moduan (laranjaz pisu turistiko bihurtzeko tramitean dauden etxebizitzak):



### 1.5. Turismoaren promozioa

*“Ez dugu turismo gehiago erakartzeko plangintzarik burutuko. Destinoa zaintzeko erabakiak eta neurriak hartzen jarraituko dugu. Hori da gure apustu nagusiena.” (Eneko Goia, 2019-06-19)*

Egia da, alde batetik, Donostia Turismoa SAK gero eta diru publiko gutxiago erabiltzen duela Donostia zuzenean promozionatzeko arloko ferietan eta abar.

#### Turismo kanpaina orokorretarako udal aurrekontuen eboluzioa

2016	210.000,00 €
2017	154.000,00 €
2018	130.000,00 €
2019	75.000,00 €

Aldiz, zeharkako beste bide batzuetatik promozio kanpainei eusten zaie. Egun ezin da jakin zenbat diru publikoz hitz egiten ari garen, dirua banatzeko bideak ezohikoak edo berriak direlako, eta beraz, herritarrok kontuen jarraipena egitea zailagoa da.

Azken adibidea da Woody Allenen pelikula, gutxienez 60.000 eta 120.000 euro arteko diru-laguntza publikoa jaso duela “hiriaren promozioa” egiteagatik. Helmuga-turistikoen ugaritzeak helmugen arteko lehia areagotu du, eta testuinguru honetan, fikziozko zinema turismoaren promoziorako bitarteko indartsu eta erabilia bilakatu da. Izan ere, halako bitarteko batek nazioartean eragina duen publizitate kanpaina baten gisa funtzionatzen du. Honen adibide bat da zinemagile beraren “Vicky Cristina Barcelona” pelikula.



Donostiako promoziorako erabilitako zeharkako beste bide batzuk:

- 2019ko urtarrilaren 23tik 27ra Donostiak FITUR azokan stand bat izan zuen Basque Country gunean, “bertako ardatz nagusiei buruzko informazioa eskaintzeko: turismoa, gastronomia, kultura, kirola, premium-a eta kongresuak.” Bertan, gainera, [“Donostiako Pintxo Institutua”](#) aurkeztu zen.
- 2019ko martxoaren 6tik 12ra, berriz, Donostia Turismo & Convention Bureauko ordezkariak eta establezimendu bazkideak, alor turistikoan mundu mailan azoka liderra den ITB Berlin azokan izan ziren “Donostia city break eta hiri-helmuga turistikoa bezala sustatzeko.”

**TURISMOARI BURUZKO BALANTZEA**

Donostiak Basquetourren eskutik parte hartu zuen, Tourspain-eko stand-aren barruan. Hauxe dio Donostia Turismoak honen harira atera zuen [oharra](#):

*“Helburua da **Donostia helmuga turistiko bezala sustatzea** publiko profesionalari begira (agentziak, turoperadoreak, komunikabideak, bloggerrak...) lehenengo hiru egunetan, eta publiko finalari zuzenduta asteburuan.”*

## **2. ONDORIOAK**

### **2.1. Parte Zaharrea masifikazioa**

Donostiako Udalak Alde Zaharrera sartzen den jendea neurtzeko dituen gailuen arabera, 2019ko uztailean eta abuztuan 2,8 milioi pertsona sartu dira auzoan, batzaz beste 46.000 egunean, iaz baino %2,7 gehiago.

Auzoan 6000 bat pertsona bizi dira, hau da, udan Alde Zaharreko populazioa zortzi aldiz biderkatu egiten da. Auzoak jasotzen duen giza presio altuak eragiten duen “estres soziala” jasan ezina da, auzotar askoren esanetan.

### **2.2. Lan gatazkak**

#### **2.a) Gipuzkoako ostalaritza: 10 urte Lan Hitzarmenik gabe**

- 2019ko irailaren 13an, [ELA sindikatuak Donostian egindako agerraldian](#) horrela azaldu zuen sektorearen egoera:

*“Azken urteetan Gipuzkoan turismoak izan duen hazkundearekin batera, ostalaritzaren sektorea ere sendotu egin da, beti ere, lan baldintzen kontura (...) Gipuzkoako ostalaritzak ia 10 urte daramatza hitzarmenik gabe eta gertatzen ari den turismoaren gorakada langileen lan baldintzen kontura ematen ari da. Gehitu dutenez, onartezina da Gipuzkoako hiriburuak Turismoaren Mundu Erakundearen sariak jasotzen dituen bitartean, bertako jatetxe zein tabernetan langileen esplotazioa eguneroko kontua izatea.”*

- Ostalaritzako hitzarmena berri ez izanak langileengan ondorio larriak eragin ditu, besteak beste, %10eko erosahalmena galtzea eta kontratazio berri gehienetan gutxieneko soldata aplikatzea. Langileen ordezkarien hitzetan:

*“Argi dugu onartezina dela jatetxe eta tabernetan gutxieneko soldata ordaintzea lanaldi amaigabeen truke. Gipuzkoako bizi baldintzak geroz eta altuagoak direnean ostalaritzako langileek geroz eta lan baldintza txarragoak dituzte”*

## 2.b) Hotelak, azpikontratazioa eta prekarietatea

2018ko maiatzean, LAB, ELA, UGT eta CCOO sindikatuek Gipuzkoako hoteletako langileak grebara deitu zituzten soldata igoera eta externalizaziekin amaitzeko eskatzeko, zerbitzuen externalizazioa, prekarietateari zuzenki lotuta dagoela iritzita. [Langileen ordezkariak horrela definitu zuten](#) gaur egun bere horretan mantentzen den egoera:

*“Geroz eta gehiago dira Gipuzkoan zerbitzuak azpikontratatzan dituzten hotelak, eta etorkizunean gehiago izango direla argi daukagu. Adibide moduan, hor daukagu azpikontratazioaren alde egin duten Hotel Londres, Hotel Barcelo Costa Vasca eta Hotel Mercure Monte Igeldo, eta berau muturreraino eramane duen Zenit hotela, harrera ez beste hoteleko jardun guztia externalizatu duena. Hoteletan azpikontratazioa prekarietateari zuzenki lotuta dagoela ikusi dugu: langileoi ez zaie ostatu hitzarmen kolektiboa aplikatzen, eta hauei ezartzen zaizkien baldintza ekonomikoak eta lanaldi amaigabeak prekarietatearen isla argia dira.”*

### 2.3. Etxebizitzaren arazoa

- Adituen artean badago eztabaida ireki bat pisu turistikoek alokairuen prezioetan duten eraginaren inguruan. Zentzu honetan, azken egunetan, lehendabiziko aldiz Europako hiri batean, Bartzelonan etxebizitzaren prezioetan AirBnB-k izan duen eragina aztertzen duen [ikerketaren zientifiko bat](#) argitaratu da eta ez dago zalantzarik [eragin negatiboaren](#) inguruan.
- **Alokairuen prezioak inoizko altuenak** dira Donostian, neurtzeko sistema edozein izanda ere. Izan ere, eboluzioa neurtzeko irizpide desberdinak daude. Alde batetik, Eusko Jaurlaritzak maizterrek ordaintzen dituzten fidantzak hartu ditu erreferentziatzat, baina formula honek ez ditu pisuen/gelen tamainak bereizten. Beste aldetik, Idealista edo Fotocasa bezalako portalek eskaintzaren eboluzioa neurtzen dute, metro koadroaren prezioa zehaztuz.

#### **Idealista.com Abuztua 2019**

	<b>Precio m<sup>2</sup> agosto 2019</b>	<b>Variación mensual</b>	<b>Variación trimestral</b>	<b>Variación anual</b>	<b>Máximo histórico</b>	<b>Variación máximo</b>
<b>Donostia</b>	14,4 €/m <sup>2</sup>	+3,2 %	+3,3 %	+1,2 %	14,5 €/m <sup>2</sup> noviembre 2018	-0,9 %



**Auzoak:**

- Egia: 14,9 €/m<sup>2</sup>
- Antigua: 14,3 €/m<sup>2</sup>
- Gros: 15,7 €/m<sup>2</sup>
- Amara: 12,9 €/m<sup>2</sup>
- Parte Zaharra: 15,7 €/m<sup>2</sup>

**2.4. Bizilagunen kanporatzea Parte Zaharretik eta Grosetik**

Donostiak, inguruko hiri guztien joera berdinean, apurka-apurka populazioa irabazten duen bitartean, Gros eta Parte Zaharra dira bizilagun gehien galtzen duten auzoak. Bi auzo hauek turismoaren boom-aren epizentroa diren heinean, etxebizitzaren prezioa asko garestitu da, eta masifikazioaren ondorioz bizi-baldintzak gero eta okerragoak dira; ahaztu gabe, lehen bizitzeko ziren hainbat eta hainbat etxe, orain pisu turistiko edo hotel bilakatu direla.

	<b>2011</b>	<b>2015</b>	<b>2019</b>	<b>8 urtetan</b>
<b>PARTE ZAHARRA</b>	4868	4864	4485	-383 (-%7,07)
<b>GROS</b>	15555	15045	14457	-1098 (-%7,06)
<b>DONOSTIA</b>	147544	148052	147976	+432 (+%0,3)

Iturria: Hauteskunde zentsua

## **3. Gomendioak**

### **3.1. 2017-2021 Turismo Gida Plana helburuei eustea**

2017ko uztailen, 2017-2021 Turismo Gida Plana aurkeztu zuenean, Udal Gobernuak strategiaren aldaketa adierazgarria iragarri zuen. Hitzez hitz: “turisten kopurua haztea baino [gaualdiak 1.250.000 kopurua egonkortua zegoen orduan] Donostia marka ondo kudeatzea da helburua, Donostiaren esentzia ez indargabetzea, aitzitik, hiriaren identitatea, balioak eta kultura sustatuko dituen”.

Indarrean sartu zenetik bi urte baino gehiago igaro ondoren, begien bistakoa da Turismo Plan honek ez dituela bere helburuak bete. Plan hau agortzen ari da, eta jasotzen dituen helburu nagusiak (gehiago ez haztea, deszentralizatzea, desestazionalizatzea) bete nahi badira, neurri zuzentzaile sakonak ezarri beharko dira.

### **3.2. Jarduerak eragiten duen “estres soziala” kontuan hartzen hastea**

Urtero %10aren bueltan igotzea ez da jasangarria, eta dinamika horrekin apurtzea funtsezkoa da donostiarren bizi kalitatea mantendu eta batez ere hobetu nahi badugu. Helburua ez da turismo gehiago erakartzea, denok onartzen dugun moduan, eta logikoa da pentsatzea hori horrela dela dagoeneko nahikoa hazi delako turista kopurua. Eta kopuruak “muga” baldin badu, logikoa ere bada pentsatzea kopuru batetik gora onurak baino arazo gehiago eragiten dituelako dela. Beraz, erronka Donostiaren eta donostiarren neurria egokituko den turismo eredu bat garatzea bada, ezinbesteko lehen urratsa hazkundera gelditzea izan beharko da.

### **3.3. Turismo behatokiari norabide egokia ematea**

Turismo Gida planean jasota egon arren, oraindik ez da martxan jarri. EH Bilduk iraileko udal batzarrean martxan jartzeko eskatu zuen, mozioa aho batez onartu zen eta udal gobernuak azarorako igarri du bere gauzapeña.

Behatokiaren helburu nagusi eta behinena, jarduera ekonomiko honek donostiarren bizi baldintzetan duen eragina neurtzea eta eragin negatibo horiek ekiditeko neurri zuzentzaileak proposatzea izan beharko litzateke. Halere, Udal gobernuak iragarritakoa ikusita, zalantzati gaude; donostiar guztion babesak jasotzeko bezain onargarriak eta zentzudunak diren intentzioen atzean, ez baitago argi Behatokiaren erabileraren lehentasuna zein izango den:

*“Donostia Turismoa turismo jasangarri eta adimendunaren behatoki bat garatzen ari da, Donostiako turismoaren kudeaketa jasangarri baterako heldu behar zaizkien oinarritzko arazoak identifikatzeko aukera emango duena, baita arazo horiek aurreikusten saiatzeko ere.”*

Horiek horrela, Donostiako EH Bilduk auzi honi buruz egiten duen gogoeta nabarmendu nahi dugu: Donostian turismoaren jarduera eta askotariko eraginak modu integralean aztertuko dituen Behatoki bat martxan jartzea beharrezkoa dela uste dugu, beti ere herritarrek Donostian duintasunez bizitzeko duten eskubidea, hots, donostiarron bizitzak lehentasunezko hartuta.

Behatokiak ezin du soilik sektorearen mesedera egongo den tresna bat izan, dagoeneko nahikoa bitarteko dituzte beren jardueraren segurtasun ekonomikoa bermatzeko, eta are gutxiago hiriaren promozioa sustatzeko. Turismoaren onurez aritzean ohikoena jarduera honek BPG-an duen eragina azpimarratzea da. BPG-a ongizatearen adierazle bat bezala identifikatzen da maiz, baina ongizatea neurtzeko ezinbestekoa izango da BPG-a bestelako aldagai sozialekin eta ekologikoekin osatzea. Zentzu honetan, jasangarritasuna egiaz neurtzen lagunduko duten adierazleak behar ditugu. Eta ez soilik neurketak egiteko, baita politika publikoak diseinatzeko ere. Erabaki publikoak hartzerakoan ezinbestekoa da irizpide ekonomizista hutsetatik harago dauden balioak aintzat hartzea; ezinbestekoa baino, premiazkoa dela uste dugu, hori baita herritarrek egin diguten mandatua.

Behatokia, EH Bildurentzat, Donostiaren eta donostiarren neurria egongo den turismo eredua garatzeko tresna aproposa izan daiteke. Baita turismo politketan bizitza erdigunean jartzeko ere.

### **3.4. Bi puntu beroetan arreta berezia eskaintzea: Antigua eta Santa Klara**

Turistifikazio prozesuen eragin negatiboak, ohiko auzo eta eremuez gain, gero eta esparru gehiagotara zabaltzen ari dira, ez baita inolako neurri zuzentzailerik hartu. Antigua auzoa eta Santa Klara irla bi adibide besterik ez dira, epe motz-ertainera arretaz jarraitu beharko diren bi adibide.

Antiguari dagokionez, hotel, ostatu, pentsio, apartahotel edota pisu turistikoen hazkundera aski nabarmena da, eta bizilagunek ere ohartarazi dute egoeraren larriaz. Hori dela eta, Antigua auzoa “eremu ase” izendatzea aztertu beharko luke udalak, Parte Zaharrean egin bezala. Beste aldetik, etxebizitzaren prezioaren gorakada eman da eta, zalantzarik gabe, fenomeno honek pisu turistikoen zabalkundearekin lotura zuzena du. Gainera, Benta Berriko babestutako etxebizitzaren arazoa dago, bertan bizi diren [ehunka auzotarren arazoa](#) izateaz gain, auzo osoan izango baitu eragina. Beraz, Donostiako Etxebizitza politiko publikoaren diseinuan arreta berezia jarri behar da auzo honetan, adibidez, Benta Berriko etxebizitzaren jabego publikoa sustatuz.

Irlari dagokionez, bertan egin nahi den Cristina Iglesiasen egitasmoaren inguruko iritziak alde batera utzita, bisitari kopuruaren gorakadak izango dituen eraginak aurreikusi behar dira. Zentzu honetan, ingurune natural berezi honentzat babes neurri zehatz eta eraginkorrak ezarri behar dituzte Erakundeek. Ezin da esan, [Goiak esan zuen bezala](#), ondorioak egitasmoa martxan jarri eta gero kudeatuko dituela, kaltea eginga dagoenean.

### **3.5. Hotel berriei muga ezartzeko “saturazio eremua” zabaltzea**

2016-2020 urte bitartean plazen eskaintza %30 baino gehiago igoko dela aurreikusi da. Igoera honek kezka sortu du sektorean bertan -EH Bilduk konpartitzen duena- ondorengo urteotan eskaintza handi hori betetzeko adina demanda ez balego, prezioak jaisten hasiko direlako. Hotelei muga jartzeko, beraz, alde batetik, etxebizitza eraikin osoak hotel bihurtzeko baimenik ez emateko araudi aldaketaren tramitazioa bukatu behar du Udal Gobernuak, eta beste aldetik, Parte Zaharrean bezala, saturazio eremu berriak ezartzea aztertu behar du.

### **3.6. “Lehen solairuaren” araudira itzultzea**

Etxebizitzaren arazoari aurre egiteko irtenbide integrala behar dugu eta esparru askotan eragin beharra dago. Horietako bat, zalantzarik gabe, pisu turistikoen hazkundeari muga jartzea da. Erabilera turistikora pasatzen den etxebizitza bakoitzak bizitzeko leku bat gutxiago suposatzen du donostiarrentzat. Historikoki Donostiak bazuen arau bat gure hiriko eraikinetan edozein jarduera ekonomiko mugatzeko, lehen solairuaren araua. Pisu turistikoen boom-a iritsi zenean, araua indartu ea egokitu beharrean, ordenantza berria egin zuen PNV-PSE udal gobernuak. Horren ondorioz, ehunka pisu turistiko legeztatu ziren, eta joera da gero eta gehiago egotea. Eta, ondorioz, etxebizitzaren prezioa igotzen jarraitzea.

### **3.7. Langileen bizi baldintzak hobetzea**

Azken urteotan, asko igo da turismoari lotutako sektoreetan lanean ari diren donostiarren kopurua. Beste edozein arlotan bezala, Udalak eragile aktiboa izan behar du turismoan ere langileek lan baldintza duinak izan ditzaten. Zentzu honetan, ostalaritzarekin akordioak bilatu behar ditu Udalak, lan hitzarmenaren aldeko lana eginez.

### **3.8. Tasa turistikoa ezartzea**

EAJ eta PSEren eskuetan dauden Erakundeek lehenbailehen ezartzeko borondatea dutela adierazi arren, ez dirudi epe motz-ertainean indarrean sartuko denik, sektorearen zenbait elkarte kontra agertu direlako. Halere, turismoaren itzulketa soziala lortzeko eta sortzen den aberastasuna banatzeko tresna egokia den heinean, lehentasunezkoa izan beharko litzateke.

### **3.9. Herritarren partaidetza areagotu behar da**

Turismoak alde positiboak eta negatiboak dituenez, ahalik eta adostasun handienarekin kudeatu behar da. Are eta gehiago kontuan hartzen badugu turismoak hirian ondorengo urteotan izango duen inpaktua gero eta handiago izango dela. Hori dela eta, bai Gida-planaren berrikuspenean bai etorkizunean ezarriko diren bestelako politika publikoen diseinuan, turismoko sektoreko eragileez gain, auzo-elkarteekin, sindikatuekin eta bestelako eragile sozialekin eta herritarrekin kontaktu behar da.